

PRIBATUTASUN- ETA COOKIE- POLITIKA

GURE PRIBATUTASUN- ETA COOKIE- POLITIKA BEGIRATU BATEAN

1. **NOR GARA?** Gu Zara España SA eta Industria de Diseño Textil SA (Inditex SA) gara, eta zure datu pertsonalen *tratamenduaren erantzunkide* gara. Horrek esan nahi du zure datuak erabili eta babesteko moduz arduratuko garela. [Ikusi gehiago](#).
2. **ZERTARAKO ERABILTZEN DITUGU ZURE DATUAK?** Zure datuak (online edo zuzenean lortuta), besteak beste, **zure erabiltzaile-erregistroa kudeatzeko**, produktu edo zerbitzuen **erosketak kudeatzeko**, zure kontsultekin laguntzeko edota, hala nahi baduzu, gure komunikazio pertsonalatuak bidaltzeko erabiliko ditugu. [Ikusi gehiago](#).
3. **ZERGATIK ERABILTZEN DITUGU?** Zure datuak hainbat arrazoi direla eta erabiltzeko eskubidea dugu. Erregistratu eta erosketaren bat egiterakoan edo gure zerbitzu edo funtzionalitateez gozatzekoan onartzen duzun **kontratua burutzea** da arrazoi nagusia. Hala ere, horretarako eskubidea ematen diguten beste arrazoiak ere badaude, hala nola, zure kontsultekin lagundu ahal izatea edo gure newsletter-ak bidaltzeko ematen diguzun baimena. [Ikusi gehiago](#).
4. **NOREKIN PARTEKATZEN DITUGU ZURE DATUAK?** Zure datuak laguntza edo arreta ematen diguten zerbitzu-hornitzaileekin partekatuko ditugu, hau da, Inditex Taldeko enpresekin zein kanpoko kolaboratzaileekin. [Ikusi gehiago](#).
5. **ZURE ESKUBIDEAK.** Zure datu pertsonaletara sartzeko eta horiek zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea duzu. Kasu batzuetan, beste gauzetarako eskubideak ere badituzu, adibidez, zure datuak erabiltzearen edo horiek garraiatzearen aurka egotea, aurrerago zehazten dugun moduan. [Ikusi gehiago](#).

Gure **Pribatutasun- eta Cookie-politika** osorik irakurtzera gonbidatzen zaitugu zure datu pertsonalak nola erabiliko ditugun eta horiei dagokienez daukazun eskubideak ezagutu ditzazun.

HASI AURRETIK...

- **Pribatutasun- eta Cookie-politika** honetan gure **bezero eta erabiltzaileen datu pertsonalen** erabilerari buruzko informazio garrantzitsu guztia aurkituko duzu, gurekin harremanetan jartzeko era (linean edo zuzenean) zeinahi bada ere.
- Cookieak eta gure bezero eta erabiltzaileen gailuetan instalatuta egon litezkeen bestelako tresnak nola erabiltzen ditugun jakin nahi baduzu, kontsultatu Pribatutasun-politika.
- **Gardenak gara** zure datu pertsonalekin egiten dugunari dagokionez, eta horien erabilerak dakartzan ondorioak edo horiei dagokienez daukazun eskubideak uler ditzazun:
 - Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan **informazio guztia une oro** zure eskura jartzen dugu, nahi duzunean kontsulta dezazun; halaber,
 - zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko **informazioa** ere aurkituko duzu, **gurekin harremanetan edozertarako jartzen zaren bakoitzean**.
- Hona hemen Pribatutasun- eta Cookie-politikan erabiliko ditugun hainbat izen:
 - Gure **Plataformari** buruz hitz egiten dugunean, gurekin harremanetan jartzeko erabiltzen duzun edozein kanal edo bide deritzogu, bai digitalak eta bai zuzenekoak. Hona hemen nagusienak:
 - Gure **webgunea**.
 - Gure **aplikazioa**, hau da, bai zure gailuan instalatutako mugikorrerako aplikazioa bai gure Plataforman erabiltzen ditugunak.
 - Fisikoki, gure **Denda Fisikoren** batean.

1. NOR DA ZURE DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA?

Hona hemen zure datuen tratamenduaren arduradunak:

- **ZARA ESPAÑA SA**, gaur egun Espainian ZARA markako produktuen salmenta zuzentzen duen sozietatea (aurrerantzean, ZARA ESPAÑA):
 - Posta-helbidea: Avda. de la Diputación, Edificio Inditex, 15143, Arteixo (A Coruña), Espainia.
 - Datuen babeserako ordezkariaren helbide elektronikoa: dataprotection@zara.com
- **INDUSTRIA DE DISEÑO TEXTIL SA (Inditex, SA)**, ZARA ESPAÑAren enpresa nagusizat funtzionatzen duen sozietate espainiarra (aurrerantzean, INDITEX):
 - Posta-helbidea: Avda. de la Diputación, Edificio Inditex, 15143, Arteixo (A Coruña), Espainia.
 - Datuen babeserako ordezkariaren helbide elektronikoa: dataprotection@zara.com

Bestela esanda, bai ZARA ESPAÑA bai INDITEX (aurrerantzean, elkarrekin “Gu” edo “Tratamenduaren arduradunak”), gara tratamenduaren **Arduradunak**. Horrek esan nahi du zure datuak erabili eta babesteaz arduratzen garela eta horiek erregulatu ditugula.

2. ZERTARAKO TRATATZEN DITUGU ZURE DATU PERTSONALAK?

Une bakoitzean gozatu nahi duzun produktu, zerbitzu edo funtzionalitateen arabera, datu jakin batzuk tratatu beharko ditugu. Normalean, datu horiek honako hauek izango dira kasuaren arabera:

- zure **datu identifikagarriak** (adibidez, zure izena, abizenak, irudia, hizkuntza, gurekin harremanetan jartzen zaren herrialdea, kontaktu datuak, etab.);
- informazio **ekonomikoa eta transakzionala** (adibidez, zure ordainketa-datuak edo txartelaren datuak, erosketa, eskaera eta itzulketei buruzko informazioa, etab.);
- **konexio-, geolokalizazio- eta nabigazio-**datuak (adibidez, kokaleku-datuak, gailuaren identifikazio-zenbakia edo publizitatearen IDa);
- informazio **komertziala** (adibidez, gure newsletter-era harpidetuta bazaude);
- zure **interes eta lehentasunei** buruzko datuak;
- baliteke **datu-kategoria bereziak** behar izatea (adibidez, osasun-datuak, gorabehera jakin batzuk kudeatu behar direnean, hala nola produktu kosmetikoekin zerikusia dutenak).

Gogoan izan Plataformaren funtzionalitate edo zerbitzuren bat erabiltzeko zure datu pertsonalak ematea eskatzen dizugunean, hainbat eremu *derrigorrezkoak* direla adieraziko dizugula, zerbitzua edo funtzionaltasuna erabiltzeko ezinbesteko datuak baitira. Datuak ematen ez badituzu, baliteke ezin izatea erabiltzaile gisa erregistratu edo zerbitzu edo funtzionalitate horiek erabili.

Beste kasu batzuetan, informazioa pasiboki lor dezakezu jarraipen-tresnak erabiltzerakoan, esate baterako nabigatzaileen cookieak edo gure Plataformako edo bidaltzen dizkizugun komunikazioetako bestelako teknologiak. Kasu jakin batzuetan, baliteke hirugarren batek zuri buruzko informazioa guri ematea Plataformaren funtzionalitate edo zerbitzuren bat erabiltzean, adibidez, opari-txartela edo zure helbidera eskaeraren bat bidali badizute.

Kasu horietan, zure datuak funtzionalitate edo zerbitzu horri dagokionez bakarrik tratatuko ditugu, Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan ezarritakoaren arabera.

Gure Plataforma nola erabiltzen duzun arabera, zure datu pertsonalak honako xede hauetarako tratatuko ditugu:

XEDEA	informazio gehiago
<p>1. Plataformaren erabiltzaile gisa zure erregistroa eta identifikazioa kudeatzeko</p>	<p>Gure Plataforman erabiltzaile-erregistroa egin nahi baduzu, zure datuak erabili beharko ditugu horren erabiltzailetzat identifikatzeko eta erabiltzaile gisa izango dituzun funtzionalitate, produktu eta zerbitzuak erabiltzeko baimena izan dezazun. Zure erabiltzaile-kontua baliogabetzeko, jarri harremanetan gurekin Bezeroentzako Arreta Zerbitzuaren bidez.</p> <p>Zure jardueri buruz jasotzen ditugun datuak, zure erosketak barne eta Plataformako kanal ezberdinen bidez lortuak, zure kontuari lotuta mantenduko dira informazio guztia batera ikusi ahal izateko.</p> <p>Gure Plataforman identifikatzeko hainbat metodo erabil ditzakezu. Horretarako, baliteke erabiltzen ari zaren kontaktu-datuen jabea zarela egiaztatzen duen prozesuari jarraitu behar izatea.</p>
<p>2. Gurekin Plataforman kontratatu duzun zerbitzu- edo salerosketa-kontratua</p>	<p>Xede honek barne hartzen du zure datuen tratamendua honako hauetarako batez ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zurekin harremanetan jartzeko kontratatutako funtzionalitate, produktu edo zerbitzuekin lotutako eguneraketak edo informazio-

XEDEA	informazio gehiago
<p>garatzeko, betetzeko eta burutzeko</p>	<p>komunikazioak jakinarazteko; honek barne hartzen ditu emandako produktu edo zerbitzuei buruzko kalitate-inkestak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Erosten dituzun produktuen ordainketa kudeatzeko, ordaintzeko era zeinahi bada ere. Adibidez: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Webgune edo aplikazioaren bidez gure produkturen bat erosterakoan etorkizunean erosketak egiteko ordainketa-datuak eta bidalketa-helbidea gordetzeko funtzionalitatea aktibatzea erabakitzen baduzu (funtzionalitate hori erabilgarri egonez gero), adierazitako datuak beharko ditugu funtzionalitate hori aktibatzeko eta garatzeko. Funtzionalitate hori aktibatzeko beharrezkoa den baimenari esker, zure ordainketa-datuak automatikoki beteta agertuko dira etorkizuneko erosketetan; beraz, prozesu berri bakoitzean ez dituzu berriz sartu beharko, eta baliozkoak izango dira eta indarrean egongo dira etorkizunean egiten dituzun erosketetarako. Zure ordainketa-datuak edozein unetan aldatu edo ezabatu ahal izango dituzu ordainketa-informazioari dagokion atalaren bidez, bai webgunean erregistratutako zure erabiltzaile-kontuan eta bai aplikazioaren Nire kontua atalean. ▪ Aurrez aurreko erosketak ordaintzeko aplikazioak duen funtzionalitatea erabilgarri badago eta erabiltzen baduzu, zure datuak erabili beharko ditugu hori aktibatzeko eta horretarako prestatuta dauden denda fisikoetan erosketak egiten has zaitezten. ▪ Beharrezko mekanismoak aktibatzea Plataformaren erabilera okerra prebenitu eta hautemateko, adibidez, erosketa- eta itzulketa-prozesuan zehar, baita zure eta/edo Gure aurkako iruzur potentzialak ere. Eragiketa iruzurrezkoa dela uste badugu edo iruzurrezkoak izan litezkeen ohiz kanpoko jokabideak hautematen baditugu gure funtzionalitate, produktu eta zerbitzuen erabileran, baliteke tratamendu honek transakzioaren blokeoaren edo zure erabiltzaile-kontuaren indargabetzearen moduko ondorioak izatea. ▪ Aldaketa edo itzulketa posibleak kudeatzea erosketa egin ondoren eta jantzien eskuragarritasunari buruzko informazio-eskaerak edo produktuen erreserbak Plataformaren bidez kudeatzea, aukera horiek une horretan erabilgarri badaude. ▪ Fakturazioa behar bezala egiteko eta Plataformaren bidez egindako erosketen tiket eta fakturak zure eskura jartzeko. ▪ Beste funtzionalitate edo zerbitzuen erabilera bermatzea erabilgarri badaude, hala nola, Opari-txartelaren edo Opari-tiketaren erosketa, harrera, kudeaketa eta erabilera, baita Denda Fisikoetan gure bezeroen eskura jartzen dugun wifia erabiltzea erraztea ere. ▪ Inditex Taldearen InWallet aplikazioaren (“InWallet”) erabiltzailea bazara eta Plataforma honetako kontua InWallet kontuarekin lotzea eskatu baduzu, linean egindako zure eskaera eta itzulketekin

XEDEA	informazio gehiago
	<p>lotutako informazioa ematea baimentzen diguzu. InWallet aplikazioak jasotzen duen informazioa bere baldintza eta politikei lotuta dagoenez, horiek irakurtzea gomendatzen dizugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Denda fisiko batzuetan dauden zerbitzu pertsonalizatu jakin batzuk eskaini ahal izateko (hala nola, artikuluen bilatzailea, probagelen erreserbatzea, etab.), zure kokapen- eta harreman-datuak tratatu behar ditugu. ▪ Azkenik, zure datuak tratatu ditzakegu aplikagarri izan daitekeen legezko edozein betebeharrarekin.
<p>3. Bezeroentzako arreta zerbitzuaren kanalen bidez egiten dituzun eskaerekin laguntzeko</p>	<p>Zure eskaera kudeatu edo burutzeko benetan beharrezkoak diren datu pertsonalak besterik ez ditugu tratatzen.</p> <p>Telefonoa erabiltzen baduzu, baliteke deia grabatzea zure eskaerarekin lagundu ahal izateko eta horren kalitatea bermatzeko.</p> <p>Erabilgarri badago eta Bezeroentzako arreta zerbitzuarekin WhatsApp bidez harremanetan jartzen bazara, zure telefono-zenbakia WhatsApp Inc.-i emango diogu (AEBetan kokatutako sozietatea), zerbitzu horren erabiltzailea zarela egiaztatzeko. WhatsApp-eko pribatutasun-ekarpenak berrestea eta pribatutasun-politika irakurtzea gomendatzen dizugu, bere zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaileen datu pertsonalak WhatsApp-ek nola erabiltzen dituen inguruan informazio zehatzagoa lortzeko.</p> <p>Erabilgarri badago eta Bezeroentzako arreta zerbitzuarekin sare sozial edo gure kolaboratzaile baten bidez harremanetan jartzen bazara, zure datu batzuk sare sozialaren edo gure kolaboratzailearen kontutik inportatuko dira, esate baterako, izena edo erabiltzaile-izena. Bestalde, kontuan izan zerbitzu honetan ematen dituzun datuak zure sare sozialerako edo gure kolaboratzaileerako eskuragarri egongo direla, eta haien pribatutasun-politikei lotuta egongo direla. Hori dela eta, sare sozialeko edo kolaboratzailearen webguneko zure pribatutasun-ekarpenak berrestea eta pribatutasun-politikak irakurtzea gomendatzen dizugu, haien zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaileen datu pertsonalak nola erabiltzen dituzten inguruan informazio zehatzagoa lortzeko.</p>
<p>4. Marketin xedeetarako</p>	<p>Xede honek barne hartzen du zure datuen tratamendua honako hauetarako batez ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Eskaintzen dizkizugun zerbitzuak pertsonalizatzea eta Plataforman gurekin daukazun harremanen eta zure erabiltzaile-profilaren analisiaren araberrako gomendioak egitea (adibidez, zure erosketa- eta nabigazio-historiaren arabera). ▪ Gure Newsletter-era harpidetuz gero, zure datuak tratatuko ditugu harpidetza kudeatzeko, gure produktuei buruzko informazio pertsonalizatuaren bidalketa edo hainbat bideren bidez egindakoak barne (hala nola, posta elektronikoko edo SMS bidez).

XEDEA	informazio gehiago
	<p>Bestalde, informazio hori push jakinarazpenen bidez bidali ahal izango dizugu, horiek gailuan aktibatuta badituzu.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hori dela eta, kontuan izan datuak tratatzeko zure erabiltzaile- edo bezero-profilaren analisia egitea beharrezkoa dela, horrela zure lehentasunak zehazteko eta zure estiloarekin bat datozen produktu eta zerbitzuak ezagutzeko, zuretzat interesgarria den informazioa helarazteko. Adibidez, zure erosketa- eta nabigazio-historia kontuan hartuz (hau da, klikatu dituzun jantzien arabera), zuretzat interesgarriak izan daitezkeen produktuak iradoki ahal izango dizkizugu eta, erregistratutako erabiltzailea bazara, "orgatxo berreskuratze" aukera emango dizugu. ▪ Gogoan izan Newsletter-an baja eman dezakezula edozein unetan ordainketarik egin gabe Plataformaren "Newsletter" atalaren edota komunikazio guztietan agertzen diren adierazpenen bidez. Push jakinarazpenak jaso nahi ez badituzu, desaktibatu aukera hori zure gailuan. ▪ Webguneetan edo aplikazioetan, esate baterako, sare sozialak, nabigatzerakoan ikusi ahal izango duzun Internet-publizitatea erakustea. Baliteke publizitate hori ausaz agertzea, baina beste batzuetan zure erosketa-historial, lehentasun eta nabigazioarekin zerikusia duen publizitatea izan daiteke. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Sare sozialen erabiltzailea bazara, baliteke informazio jakinen bat gurekin elkarlanean daudenei eman behar izatea gure markako publizitatea erakuts diezazuten eta, orokorrean, zuri edo bestelako erabiltzaileei publizitatea eskaintzea zure sare sozial horietako profila kontuan izanda. Zure datuen erabilerari eta sare sozial horietako publizitatearen funtzionamenduari buruzko informazioa nahi izanez gero, irakurri erabiltzen dituzun sare sozialen pribatutasun-informazioa. ▪ Kolaboratzaileen plataforma batzuetan erabiltzaileei erakusten diegun publizitatearen neurketa- eta segmentazio-analisiak egiteko ere erabiltzen ditugu zure datuak. Horretarako, elkarlanean dihardugu zerbitzu horiek erabiltzeko beharrezkoa den teknologia eskaintzen diguten hirugarren horiekin (adibidez, cookie, pixel, SDK bidez). Nahiz eta kolaboratzaile horiei datu pertsonal identifikatzaileak ez eman, identifikatzaile bakarren bat ematen diegu (esate baterako, gailuari lotutako publizitate-identifikatzailea, cookieren baten identifikatzailea, etab.). Hori buruzko informazio gehiago nahi baduzu, irakurri gure Cookie-politika. Orobat, zure gailuan publizitate-identifikatzailea berrezar dezakezu, edo publizitatearen pertsonalizazioa desgaitu, zure lehentasunak gailuko ezarpenetan aldatuz. ▪ Datuen aberastea: Zure datuak hainbat iturritatik lortzean, egoera jakin batzuetan konbinatu ahal izango ditugu zure behar eta

XEDEA	informazio gehiago
	<p>lehentasunak hobeto ulertzeko gure produktu eta zerbitzuei dagokienez (analisi-xedeak, erabilera-profilen sorkuntza, marketin-ikerketak, kalitate-inkestak eta gure bezeroekiko harremana hobetzea barne). Adibidez, egin dezakegun informazioaren konbinazioari buruz ari gara, erregistratutako kontua baduzu eta zure kontuari lotutako helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki berarekin gonbidatu gisa erosketak egiten badituzu; edo automatikoki jasotako informazioari buruz ari gara (hala nola, IP helbideak, MACak edo metadatuak), Plataforman edo gure edozein dendatan izan duzun jardueraren bidez emandako informazioarekin lotu dezakeguna (besteak beste, denda fisikoetan edo online dendan egindako erosketei lotutako informazioa, edo zure lehentasunak).</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Sustapen-ekintzak burutzea (esate baterako, lehiaketen garapenerako edo gorde dituzun artikuluen zerrenda adierazitako helbide elektronikora bidali ahal izateko). Sustapen-ekintzetan parte hartuz gero, baimena ematen diguzu emandako datuak sustapen-ekintza bakoitzaren arabera tratatzeko eta horiek sare sozialen bidez edo Plataforma beran partekatzeko. Parte hartzen duzun sustapen-ekintza bakoitzean legezko oinarriak izango dituzu eskuragarri; bertan zure datuen tratamenduari buruzko informazio zehatzagoa emango dizugu. ▪ Plataforman edo sare sozialetan dauzkagun kanalen bidez publikoki partekatu dituzun argazki edo irudiak barreiatzea, baldin eta horretarako baimena ematen baduzu.
<p>5. Erabilera- eta kalitate-analisia gure zerbitzuak hobetzeko</p>	<p>Plataforma erabiltzea onartzen baduzu, zure datuak tratatuko ditugula jakinarazten dizugu xede analitiko eta estatistikoetarako, hau da, erabiltzaileak gure Plataforman nola erabiltzen duten ulertzeko eta beste webgune edo aplikaziotan burutu ditzakegun jarduerekin nola eragiten duten ulertzeko, hobekuntzak egite aldera.</p> <p>Bestalde, batzuetan kalitate-jarduerak eta -inkestak gauzatzen ditugu gure bezero eta erabiltzaileen asetze-maila ezagutzeko eta hobetu ditzakegun gauzak identifikatzeko.</p>

3. ZEIN DA ZURE DATUEN TRATAMENDURAKO LEGITIMAZIOA?

Zure datuak tratatzea ahalbidetzen digun legezko oinarria tratamenduaren xedearen arabera da ere, honako taula honetan adierazten den moduan:

Xedea	Legitimazioa
<p>1. Plataformaren erabiltzaile gisa zure erregistroa eta identifikazioa kudeatzea</p>	<p>Zure datuen tratamendua beharrezkoa da webgunearen eta aplikazioaren erabilera erregulatzen duten baldintzak burutzeko. Hau da, Plataformaren erabiltzailearen erregistroa osatzeko, zure datu pertsonalak tratatu behar ditugu, bestela, ezingo genuke zure erregistroa kudeatu.</p> <p>Gainera, baliteke Brick-and-Mortar dendetan erregistratzeko aukera izatea, onura pertsonalizatuak lortzeko aukera emango dizun profila sortuz (adibidez, txartel elektronikoko guztiak batera izatea). Horretarako, zure baimenean oinarrituta tratatuko ditugu zure datuak. Zure erosketak eta Plataformaren kanal ezberdinen bidez zure jarduerari buruzko datuak zure kontuarekin lotzeko interes legitimoa dugula uste dugu.</p>
<p>2. Zerbitzu- edo salerosketa-kontratuaren garapena, betetzea eta burutzea</p>	<p>Zurekin lotzen gaituen zerbitzu- edo salerosketa-kontratua burutzeko, zure datuak tratatu behar ditugu. Hor sartzen dira Brick-and-Mortar dendetan egindako erosketen tiket elektronikoak emateko tratatzen ditugun harremanetarako datuak, tiket horiekin eragiketak egitea zuretzat errazagoa izan dadin.</p> <p>Baliteke erosketa prozesuari lotutako hainbat datuen tratamenduk zuk eskatu edo baimena eman ondoren bakarrik aktibatzea. Hori da, adibidez, etorkizuneko erosketetarako gordetzen diren ordainketa-datuen kasua, baita aplikazioaren Wallet atalaren bidez ordainagiriak eskaneatzeko edo produktuen eskuragarritasunaz zu informatzeko ere (balidin eta funtzionalitate hori erabilgarri badago). Kasu horietan, zure datuak tratatzeko oinarria zeure baimena da. Bestalde, baimena ematen diguzunean kokapen-datuak tratatuko ditugu gure denda fisikoren bat bisitatzerakoan, aplikazioaren bidez berariazko zerbitzuak eskaintzeko.</p> <p>Plataforma erabiltzean, adibidez, produktu bat erosi edo itzultzerakoan, iruzur posibleak edo iruzurrezko erabilerak prebenitu eta hautemateko beharrezkoak diren egiaztapenak egiteko interes legitimoa dugula uste dugu. Datu horien tratamendua alderdi guztientzat positiboa dela uste dugu: zuretzat, hirugarrenen iruzurren kontra babesteko zaituzten neurriak ezartzea ahalbidetzen digulako; Guretzat, Plataforma gaizki erabiltzea saihesten laguntzen digulako; gure bezero guztientzat eta gizarte osoarentzat, iruzurreko jarduerak murriztu eta detektatzea ahalbidetzen duelako, gizartearen interesak babesteko.</p>

Xedea	Legitimazioa
<p>3. Bezeroentzako arreta zerbitzua</p>	<p>Kontaktu bide ezberdinen bidez egindako eskaera edo galderekin laguntzeko interes legitimoa dugula uste dugu. Datu horien tratamendua zuretzat ere onuragarria dela uste dugu, behar bezala laguntzea eta egiten dizkizugun galderei erantzutea ahalbidetzen baitigu.</p> <p>Hain zuzen gurekin harremanetan jartzen zarenean Plataformaren bidez erosi duzun eskaera/zerbitzuarekin lotutako gertaerak kudeatzeko, datu horiek tratatzea ezinbestekoa da salerosketa-kontratua burutu ahal izateko.</p> <p>Zure kontsulta beherago adierazten ditugun eskubideen egikaritzearekin edo gure produktu edo zerbitzuei buruzko erreklamazioekin lotuta badago, zure datuak tratatu beharko ditugu legezko betebeharrak bete ahal izateko.</p> <p>Kasu batzuetan, produktuen erreklamazioei dagokienez, baliteke datuak tratatzeko beharrezkoa izatea osasun publikoan interes publikoa bermatzea.</p>
<p>4. Marketina</p>	<p>Zure datuak marketin-xedeekin tratatzeko legezko oinarria ematen diguzun baimena da, esate baterako: informazio pertsonalizatua hainbat bideren bidez jasotzea onartzen duzunean, zure gailuan push jakinarazpenak jasotzea onartzean, cookieen edo zure gailuaren pribatutasunaren konfigurazioaren bidez baimena ematen duzunean, edo legezko oinarriak onartzen dituzunean sustapen-ekintza batean parte hartzeko edo Plataforman edo sare sozialetan ditugun kanaletan argazkiak argitaratzeko.</p> <p>Zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzeko edo informazio pertsonalizatua erakusteko, bai gure Plataforman eta bai hirugarrenen plataformetan, baita datuen aberastea burutzeko ere, interes legitimoa dugula uste dugu zuri buruzko informazioarekin (hala nola, zure nabigazioa, lehentasunak edo erosketa-historia) eta eman dizkizugun datu pertsonalekin (adin-tartea edo hizkuntza) zure profila aztertzeko. Halaber, datu horien tratamendua zuretzat onuragarria dela uste dugu, horri esker erabiltzaile-esperientzia hobetu eta zure lehentasunekin lotutako informazioa eskuratu ahalko baituzu.</p>
<p>5. Erabilera- eta kalitate-analisia</p>	<p>Plataformaren erabilera eta erabiltzaileen asetze-maila aztertzeko interes legitimoa dugula uste dugu, eta datu horien tratamendua zuretzat ere onuragarria dela uste dugu, erabiltzaile-esperientzia eta zerbitzuen kalitatea hobetzea ahalbidetzen baitigu.</p>

4. ZENBAT DENBORAZ GORDEKO DITUGU ZURE DATUAK?

Zure datuak **gordetzeko epea** tratamendu-xedeen araberakoa izango da, jarraian adierazten dugun moduan:

Xedea	Gordetzeko epea
<p>1. Plataformaren erabiltzaile gisa zure erregistroa eta identifikazioa kudeatzea</p>	<p>Zure datuak erabiltzaile erregistratua zaren bitartean tratatuko ditugu (hau da, zure online kontua edo dendako profila ezabatzea erabakitzen duzun arte).</p>

Xedea	Gordetzeko epea
2. Zerbitzu- edo salerosketa-kontratuaren garapena, betetzea eta burutzea	<p>Zure datuak produktu edo zerbitzuak kudeatzeko beharrezkoa den epean tratatuko ditugu; horrek barne hartzen ditu produktu edo zerbitzu zehatzaren erosketarekin lotutako itzulketa, kexa edo erreklamazio posibleak.</p> <p>Kasu batzuetan, datuak nahi duzun unera arte besterik ez ditugu tratatuko; hori da etorkizuneko erosketak egiteko gordetako ordainketa-datuen kasua (baldin eta funtzionalitate hori erabilgarri badago).</p>
3. Bezeroentzako arreta zerbitzua	<p>Zure datuak zure eskaerarekin laguntzeko beharrezkoa den denboran zehar tratatuko ditugu, bai eta kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen erregelamenduetan ezarritako denboran ere.</p>
4. Marketina	<p>Zure datuak baja egiten duzun arte edo newsletter-a deuseztatzen duzun arte tratatuko ditugu.</p> <p>Orobat, publizitate pertsonalizatua erakutsiko dizugu cookieen konfigurazioa aldatzen duzun arte gailuz edo nabigatzailez aldatzen duzun arte, horrek baimena ezeztatuko baitu.</p> <p>Sustapen-ekintzetan parte hartuz gero, zure datuak sei (6) hilabetez gordeko ditugu, jarduera amaitzen denetik hasita.</p>
5. Erabilera- eta kalitate-analisia	<p>Zure datuak tratatuko ditugu jarduera edo kalitate-inkestaren bat burutzen dugun denboran zehar, edo zure nabigazio-datuak anonimo bihurtzen ditugun arte.</p>

Dagokion helburua betetzeko behar-beharrezkoa den denboran tratatuko ditugu datuak; hala ere, ondoren ere gordeko ditugu, behar bezala gordeta eta babestuta, unean uneko indarreko araudia betetzeko tratamendutik eratorritako erantzukizunak sor litezkeen epean. Kasu bakoitzeko jarduera posibleak preskribatu ondoren, datu pertsonalak ezabatuko ditugu.

5. ZURE DATUAK HIRUGARRENEKIN PARTEKATUKO DITUGU?

Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan adierazitako xedek betetzeko, beharrezkoa da zure datu pertsonalak partekatzea eskaintzen dizkizugun zerbitzuetan laguntza ematen diguten **Inditex Taldeko entitateekin** eta **hirugarrenekin**, hau da:

- **finantza**-erakundeak,
- **iruzurrak detektatu eta prebenitzeko** erakundeak,
- **zerbitzu teknologiko eta analitiko** hornitzaileak,
- **logistika-, garraio-** eta **entrega**-zerbitzuen hornitzaile eta kolaboratzaileak edo horien establezimendu erlazionatuak,
- bezeroentzako arreta zerbitzuarekin lotutako zerbitzu-hornitzaileak.

- **marketin eta publizitatearekin** erlazionatutako zerbitzu-hornitzaileak, esate baterako, publizitate-agentziak, publizitate-bazkideak edo kasu batzuetan elkarrekin kontrolatzaile lanetan jardun dezaketen sare sozialak.
- agintaritza publikoak

Zerbitzua efizienteago egiteko, zerbitzuak ematen dituzten aipatutako horietako batzuk Europako Gune Ekonomikotik kanpo daude, eta ez dute Europar Batasunekoaren parekoa den datu-babesa ematen; hau da, Estatu Batuak. Jakinarazten dizugu kasu horietan **beharrezko bermeekin eskualdatzen ditugula**, datuak transferitzeko nazioarteko tresna egokienak erabiliz, hala nola, Kontratu Klausula Tipoak eta dagokion beste edozein neurri osagarri. Horren edukia esteka honetan kontsulta dezakezu: https://commission.europa.eu/law/law-topic/data-protection/international-dimension-data-protection/standard-contractual-clauses-scc_en..

Gure negozioa osorik edo horren parte bat beste enpresa bati salduko bagenio, hori Inditex Taldekoa izan edo ez, edo enpresaren berrantolaketa beten ondorioz beste edozein jarduera komertzial burutuko bagenu, zure datu pertsonalak negozio edo aktiboen hartzaile potentzialarekin partekatu ahalko genituzke. Salmenta edo transferentzia hori gertatuko balitz, ahal dugun guztia egingo genuke onuradunak zuk emandako informazio pertsonala gure Pribatutasun-politikaren arabera tratatzeko. Kasu horretan, gure enpresako egituraren berrantolaketan oinarrituta interes legitimoa dugula uste dugu.

Bestalde, Plataforma merkatu ezberdinetan erabili nahi baduzu (hau da, erregistratutako erabiltzaile-kontuak helbide elektronikoa berarekin merkatu ezberdinetan sortuz), baliteke zure kontu edo jarduerekin lotutako informazioa merkatu horietan jarduten duten markaren enpresekin partekatu edo transferitu behar izatea, horiek 2. atalean adierazitako edozein helburu erdiesteko zuzenean erlazionatuta dauden heinean. Uste dugu hori beharrezkoa dela gure elkarrekiko interes eta lehentasunak asetzeko.

6. ZEIN DIRA ZURE ESKUBIDEAK DATUAK EMATEN DIZKIGUZUNEAN?

Konpromisoa hartzen dugu zure datu pertsonalen konfidentziasuna errespetatzeko eta **zure eskubideak erabili ahal izatea** bermatzeko. Hori kontuan izanda, arduradunok adostu dugu **ezer ordaindu gabe** erabili ditzakezula zure eskubideak, **helbide elektronikoa batera** posta elektronikoa bidaliz: dataprotection@zara.com. Bertan, eskaeraren arrazoia eta erabili nahi duzun eskubidea adierazi beharko duzu. Zure identitatea egiaztatzen duen dokumentuaren kopia eska diezazukegu, zu identifikatzeko beharrezkoa dela uste badugu.

Bestalde, zure eskubideak erabiltzeko eta pribatutasun-lehentasunak konfiguratzeko aukera eman diezazukegu gure zerbitzuren bat erabiltzean edo Plataforman dauzkagun kanal espezifikoak zure eskura jarritz.

Bereziki, zure datuak tratatzen ditugun xede edo legezko oinarria zeinahi dela ere, eskubide hauek dituzu:

- Zuri buruz dauzkagun datuetan **sartzea** eskatzea. Gogoan izan Plataforma erregistratutako erabiltzailea bazara, informazio hori zure datu pertsonalei dagokien atalean ere kontsulta dezakezula.
- Dagoeneko dauzkagun datuak **zuzentzea** eskatzea. Gogoan izan Plataforma erregistratutako erabiltzailea bazara, zure datu pertsonalei dagokien atalean sar zaitezkeela datu pertsonalak aldatu edo eguneratzeko. Dena dela, kontuan izan zure datu pertsonalak edozein bideren bidez aktiboki ematean, **benetakoak eta zehatzak** direla bermatzen duzula, eta horietan edozein aldaketa egonez gero horri buruz jakinarazteko konpromisoa hartzen duzula. Plataformari, plataformaren arduradunari edo beste edozein hirugarreni erregistro-inprimaketan informazio okerra, zehaztugabea edo osatugabea jakinarazteagatik eragindako galera edo kalte oro erabiltzailearen erantzukizunekoia izango da. Gogoan izan oro har zeure datu pertsonalak soilik eman beharko dizkiguzula, eta ez hirugarrenenak, honako Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan baimentzen den kasuetan izan ezik.

- Zure datuak **ezabatzea** eskatzea lehen aipatutako xedea betetzeko dagoeneko beharrezkoak ez badira, edo jada horiek tratatzeko legitimaziorik ez badugu.
- Zure datuen **tratamendua mugatzea** eskatzea; horrek esan nahi du zenbait kasutan datuen tratamendua denbora batez gelditzea eskatzeko aukera duzula edo, behar baduzu, beharrezkoa den denbora baino gehiagoz horiek gordetzea eskatzeko aukera duzula.

Zure datuak edozein xederako tratatzeko **baimena** eman badiguzu, baimen hori **edozein unetan kentzeko eskubidea ere baduzu**. Baimena kentzeko zenbait era 2. atalean adierazita daude; bertan zure datuak zertarako tratatzen ditugun azaltzen dugu.

Publizitatea ikusteko hirugarrenei informazioa bidali nahi ez badiezu, hainbat era dituzu eskura, esate baterako, gailuan, nabigatzailean edo cookieen konfigurazioan lehentasunak aldatzea, pribatutasun-politika eta profila duzun sare sozialen konfigurazioa berrestea edo posta elektronikoa lehen aipatutako helbidera bidaltzea eskaerarekin. .

Datuen tratamendurako gure legitimazioa zure **baimena** edo **kontratuaren burutzea** denean, 3. atalean azaldutakoaren arabera, **zure datu pertsonalen eramangarritasuna** eskatzeko eskubidea ere izango duzu. Horrek esan nahi du eman dizkiguzun datu pertsonalak jasotzeko eskubidea izango duzula, ohiko formatu egituratuan eta makina batek irakurtzeko moduan, beste erakunde bati zuzenean transmititu ahal izateko, hori teknikoki posible bada.

Bestalde, zure datuen tratamendua gure **interes legitimoan** oinarrituta dagoenean, datuen tratamenduaren **aurka egoteko** eskubidea ere izango duzu.

Azkenik, jakinarazten dizugu **erreklamazioa aurkezteko** eskubidea duzula datuen babesari dagokion kontrol-agintaritzaren aurrean, hots, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean(<https://www.agpd.es/portalwebAGPD/index-ides-idphp.php>).

7. ZER GERTATUKO DA HIRUGARRENEN DATUAK EMAN BADIZKUGUZU, EDO HIRUGARREN BATEK ZURE DATUAK EMAN BADIZKIGU?

Erabiltzaile edo bezero zaren aldetik eman dizkiguzun hirugarrenen datu pertsonalak tratatuko dituzten funtzionalitate edo zerbitzuak eskaintzen ditugu, hala nola, Opari-txartelaren aktibazioa eta bidalketa edo Opari-tiketaren eskaeraren kudeaketa (funtzionalitate horiek erabilgarri badaude), edo hirugarren bati eskaera bat gure dendaren batean edo establezimendu erlazioaturen batean jasotzeko baimena ematen diozunean. Hirugarrenen datu pertsonalak ematen badizkiguzu, edo zure izenean dagoen bidalketa bat hirugarren batek jasotzeko bere datuak behar baditugu, datu pertsonalen tratamenduaren xedeei eta horiek tratatzeko erari buruz jakinarazi diezula bermatzen duzu.

Hirugarren batek zure datuak eman badizkigu edo zuk zeuk eman badizkiguzu gure erabiltzaile batek eskatutako funtzionalitate edo zerbitzu baten ondorioz, horiek kasu bakoitzean garatzen ari den funtzionalitate edo zerbitzua kudeatzeko erabiliko ditugu, Pribatutasun- eta Cookie-politika honetan adierazitako xedeen barruan; normalean, horien esteka gure komunikazioetan aurkituko duzu.

8. ALDAKETAK PRIBATUTASUN- ETA COOKIE-POLITIKAN

Baliteke Pribatutasun- eta Cookie-politika honetako informazioa aldatzea, egoki deritzogunean. Hori eginez gero, Plataformaren bidez jakinaraziko dizugu hainbat bideetatik (esate baterako, iragarki-banda, mezu zabalgarri edo push jakinarazpen baten bidez), edo baliteke posta elektronikoz ere jakinaraztea aldaketak pribatutasunean eragin handia duenean. Horrela, aldaketak ikusi eta zenbatesteko eta, hala badagokio, zerbitzu edo funtzionalitatearen batean baja emateko edo horren aurka egiteko. Edozein kasutan, noizean behin Pribatutasun- eta Cookie-politika

berrikustea gomendatzen dizugu, aldaketa txikiak edo hobekuntza interaktiboak egon baitaitezke, webgunean eta aplikazioan eskuragarri egongo baita beti.

9. COOKIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Cookieak eta bestelako tresnak erabiltzen ditugu Plataforman nabigatzea errazteko, Gurekin harremanetan nola jartzen zaren jakiteko eta, zenbait kasutan, zure nabigazio-ohituren araberako publizitatea erakutsi ahal izateko. Irakurri gure Cookie politika erabiltzen ditugun cookieak eta bestelako tresnak eta horien xedea hobeto ezagutzeko, baita zure lehentasunak nola kudeatu ditzakezun jakiteko eta bestelako informazio erabilgarria irakurtzeko ere.

COOKIE POLITIKA

HASI AURRETIK...

Cookie politika honetan, gure bezero eta erabiltzaileen terminalan instalatzen diren cookie eta antzeko gailuen erabilerari buruzko informazioa aurkituko duzu. Batzuetan, cookieak erabiltzea datu pertsonalen tratamenduarekin lotuta egon daiteke; beraz, gure plataforman eskuragarri dagoen pribatutasun-politika kontsultatzea gomendatzen dizugu, gure bezero eta erabiltzaileen datu pertsonalak nola erabiltzen ditugun jakiteko, zure eskubideak nola erabil ditzakezun jakiteko, edo gure plataformari buruz erabiltzen dugun terminologia (Web, App edo Denda Fisikoak) ezagutzeko.

COOKIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Zer da cookie bat?

Cookie bat testu-fitxategi txiki bat da, eta webgune, aplikazio edo beste plataforma batek zure ordenagailuan, tabletan, telefono adimendunean edo antzeko beste edozein gailutan biltegitzen du, nabigazioari edo erabilerari buruzko informazioarekin, zure gailua identifikatzen duen etiketa izango balitz bezala. Cookieak beharrezkoak dira, adibidez, nabigazioa errazteko eta erabiltzaileek plataformekin nola elkarreragiten duten jakiteko, eta, hala, hobetu ahal izateko. Oso erabilgarriak dira, halaber, erabiltzailearen lehentasunen arabera publikitate erakusteko, baita aurrerago zehazten diren beste helburu batzuetarako ere. Cookieek ez dute zure ordenagailua edo gailua kaltetzen.

“Cookie”-i buruz ari garenean, zure gailuan informazioa instalatzeko eta/edo jasotzeko antzeko beste teknologia batzuei buruz ari gara (adibidez, flash cookieak, web beacon edo bugs, pixel delakoak, HTML5 (biltegitate lokalekoak), eta SDK teknologiak app-formatuetarako). Halaber, “Cookie” terminoa fingerprinting tekniken erabilerari ere aplikatzen zaio, hau da, zure gailua identifikatzen laguntzen diguten informazio-konbinazioko teknikei. Batzuetan, teknologia horiek cookieekin batera funtzionatzen dute informazioa bildu eta gordetzeko, bai gure Plataforman zenbait funtzionalitate edo zerbitzu emateko, bai hirugarrenen plataformetan publikitate erakusteko, zure nabigazioa kontuan hartuta.

Hau da cookieen azalpen orokorra, informatzeko soilik. Berriaz erabiltzen ditugun cookieak gure Plataformako cookieen konfigurazio-panelean zehazten dira.

Zer cookie mota daude?

Mesedez, berrikusi atal hau, online erabil daitezkeen cookie motaren ikuspegi orokorra ematen baitu.

Cookieen jabearen arabera, honela sailka daitezke:

- a. Cookie propioak: Erabiltzailearen ordenagailura edo gailura bidaltzen dira editoreak berak kudeatzen duen ekipo edo domeinu batetik, eta bertatik eskaintzen da erabiltzaileak eskatutako plataforma edo zerbitzua.
- b. Hirugarrenen cookieak: Erabiltzailearen ordenagailura edo gailura bidaltzen dira editoreak kudeatzen ez duen ekipo edo domeinu batetik, baizik eta cookieen bidez lortutako datuak tratatzen dituen beste entitate batetik.

Cookiearen helburuaren arabera, honela sailka daitezke:

- a. Ezinbesteko cookieak (teknikoak): Erabiltzaileari webgune, plataforma edo aplikazio batean nabigatzeko eta bertan dauden aukera edo zerbitzuak erabiltzeko aukera ematen diote. Hala nola, trafikoa kontrolatzea, datuak edo saioa identifikatzea, sarbide mugatuko atal edo edukietara sartzea, eskaera bat osatzen duten elementuak gogoratzea, eskaera bat erosteko prozesua osatzea, ordainketa kudeatzea, zerbitzuaren segurtasunari lotutako iruzurra kontrolatzea, nabigatzean segurtasun-elementuak erabiltzea, ekitaldi

batean izena emateko edo parte hartzeko eskaria egitea, bideoak edo soinuak zabaltzeko edukiak gordetzea, eduki dinamikoak gaitzea (adibidez, testu edo irudi baten kargan animazioa) edo sare sozialen bidez edukiak partekatzea. Cookie teknikoak, ezinbestekoak dira eta horregatik lehenespenez deskargatzen dira, plataforma erakusteko edo erabiltzaileak eskatutako zerbitzua emateko.

- b. Funtzionaltasun- edo pertsonalizazio-cookieak: Cookie horiei esker informazio zehatza gogora daiteke, erabiltzailea zerbitzu edo plataformara sartzean bere esperientzia eta beste erabiltzaile batzuen bereizteko balio duena, esaterako, hizkuntza, erabiltzaileak bilaketa egiten duenean erakutsi beharreko emaitza-kopurua, zerbitzuaren itxura edo edukia erabiltzaileak erabiltzen duen nabigatzailearen arabera, edo zerbitzua erabiltzeko erabiltzailearen lurraldea, besteak beste. Cookie hauek onartzen ez badira, webgunearen errendimendu motela izan daiteke edo gaizki egokitutako gomendioak ager daitezke.
- c. Análisi-cookieak: Erabiltzaile-kopurua, plataforman bisitatutako atalak eta haiekin nola jarduten duten kuantifikatzeko aukera ematen dute cookie hauek, erabiltzaileek egiten duten erabileraren neurketa eta análisisi estatistikoa egiteko, hobekuntzak egiteko helburuarekin, erabiltzaileek plataformaren edo zerbitzuaren erabilera-datuak aztertuta.
- d. Portaerazko publizitate-cookieak: Erabiltzaileen portaerari buruzko informazioa biltzen dute, eta haien nabigazio-ohiturak etengabe behatuz lortzen dira. Horri esker, berriazko profila garatu daiteke, publizitatea haren arabera erakusteko. Cookie horiei esker, editoreak zuzenean edo hirugarrenekin lankidetzan sartutako publizitate-espazioak eraginkortasun handiz kudea daitezke.

Zertarako erabiltzen dira cookieak gure Plataforman?

Cookieak funtsezkoak dira gure plataformaren funtzionamenduan. Gure cookieen helburu nagusia da zure nabigazio-esperientzia erosoagoa eta eraginkorragoa izatea. Adibidez, zure lehentasunak gogoratzeko erabiltzen dira (hizkuntza, herrialdea, etab.) nabigazioan eta hurrengo bisitetan. Gure cookieak ere erabiltzen ditugu gure zerbitzuak eta Plataforma etengabe hobetzeko, baita zure nabigazio-ohituren arabera publizitate pertsonalizatua eskaintzeko ere.

Cookieetan jasotako informazioari esker, gainera, gure plataforma hobetu dezakegu datu estatistikoei eta erabilera-ereduei buruzko zenbatespenen bidez (bisita-kopurua, gehien bisitatu diren atalak, bisita-denbora, etab.), erabiltzaileek Plataformarekin nola elkarreragiten duten jakin dezakegu gure zerbitzuak hobetzeko, eta Plataforma zure banakako interesetara egokitu dezakegu, bilaketak bizkortzeko, etab.

Batzuetan, cookieak erabil ditzakegu gure plataforman hauexek erakusteko: hirugarrenen plataformak, edo beste edozein bidetatik, zure nabigazio-ohituren azterketan oinarritutako publizitatea (bisitatutako produktuak, kontsultatutako atalak, etab.).

Nolanahi ere, guk erabiltzen ditugun cookieetan [ez dugu inoiz](#) informazio sentikorrik gordetzen, hala nola pasahitzak, kreditu- edo zordunketa-txartelaren datuak, etab.

Nola kudea dezaket Plataforma honetako cookieen erabilera?

Gure plataforman uneoro eskuragarri dagoen Cookieen konfigurazio-panelean, Plataforma honek erabiltzen dituen Cookieei buruzko informazio guztia eskuratu ahal izango duzu, bai eta bakoitzaren asmoari, iraupenari eta kudeaketari buruzko informazioa ere (norberarena edo beste batzuen), plataformaren funtzionamendurako behar-beharrezkoak ez diren Cookieen erabileraren aktibazioa eta desaktibazioa kudeatu ahal izateko.

Bestela, Interneten nabigatzen ari bazara, cookieen erabilera desgaitu dezakezu zure nabigatzailean. Nabigatzaile ezagunenetan nola egin azalduko dizugu:

- [Google Chrome](#)
- [Internet Explorer](#)

- [Mozilla Firefox](#)
- [Safari](#)

Cookieak ez erabiltzeko aukera edozein unetan gaitu ahal da.

Mesedez, kontuan hartu cookieen konfigurazio-panelaren kudeaketa eta cookieak errefusatzeko aukera erabiltzen duzun nabigatzaile bakoitzean gauzatu behar duzula. Beraz, cookieak gailu batean modu batean konfiguratu nahi badituzu eta zure aukera beste gailu baten antzera aplikatzea nahi baduzu, beste gailu horretan aukera bera aktibatu beharko duzu.

Urrats gehigarri gisa, zure interesetan oinarritutako publizitatea emateko hirugarrenen Cookiei dagokienez, kontuan izan behar duzu hirugarren batzuk online portaera-publizitateko programa autorregulatzaile hauetako bateko kide izan daitezkeela, eta dagozkien borondatezko bazterketako aukerak dituztela:

- Network Advertising Initiative (NAI) - <http://www.networkadvertising.org/choices/>
- Google Analytics - <https://tools.google.com/dlpage/gaoptout>

Nork erabiltzen du cookieetan gordetako informazioa?

Gure Plataformako cookieetan gordetako informazioa guk bakarrik erabiltzen dugu, 2. atalean “Hirugarrenen cookieak” izenekoak izan ezik. Horiek kanpoko erakundeek erabiltzen eta kudeatzen dituzte gure zerbitzuak hobetzeko eta gure Plataforman nabigatzean erabiltzaileak duen esperientzia hobetzeko zerbitzuak emateko. Informazio gehiago aurki daiteke gure Plataformako Cookieak konfiguratzeko panelean.

Hirugarrenekin eta nazioarteko datu-transferentzien mende daudenekin lankidetzan zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio zehatzagoa lortzeko, Plataforman eskuragarri dagoen gure pribatutasun-politika irakurtzea gomendatzen dizugu, baita hirugarren kolaboratzaile horien plataformen bidez eskura daitezkeen pribatutasun-politikak eta konfigurazioak ere.